

**PATXI URIBARREN EUSKALT'ZAIN OSOAREN
SARRERA-EKITALDIA**

Garai batean tresna originalez baliatzen ziren gure herrietan mezuak zabaltzeko. Maiatzaren 28an Aramaioko seme den Patxi Uribarrenek gonbidapen dotore batekin gonbidatzen gintuen Arabako herrixka batera Euskaltzaindiko sarrera ekitaldira.

Mezua hartu genuenetik sentitzen genuen, bai, egun hau iristeko gogoia edo ilusioa. Alde batetik, Karmel Ordenako bere anaiek urteetan euskararen alde egindako lan oparoaren ai-



Karmel aldizkariko idazleak 2010eko batzarra Aramaion.



Andres Urrutia euskaltzainburua eta Patxi Uribarren euskaltzain berria.



torpena ikusten zuten, bereziki Markina eta Larreako komentuetan isil-isilik lanean aritu diren hainbat karmeldarrek egindakoaren aitopena. Burura datozkit, besteak beste, Aita Santi, Lino, Luis, etab.

Bestetik, *Karmel* aldizkari-ko idazle eta lagunek beren lankide baten bizitzako une garrantzitsu bat gertutik konpartitu nahi zuten. Horrela, elkarrekin bazkaltzeko deia luzatu zigun Julen Urkiza aldizkari-ko zuzendariak, urtero egin ohi dugun bilera dela eta. Aramaioko Azkoagan, Ibarra administrazio gune nagusitik gertu, elkartu ginen bazkari eta solasaldi lasai bat egiteko asmoz.

Bazkalondoan abestu ziren Pilare Baraiazarraren bertsoak, eta lehenengoa hau izan zen:



Euskaltzain berriari
zorion andana,
“Aramaio” omentzera
bihotzak narama,
ibilbide ederra
naturala dana;
euskal kultura eta
fedeari emana.

Giroa berezia zela ezin ukatu, batek zioen bezala “hain gertukoa dugun Patxi Euskaltzain oso izatea gauza handia da”. Handia ez dakit izango den, baina egunak elkartu zituen Aramaioko elizan karmeldarrak, Patxiren familia, euskal kulturako ordezkari ugari eta Aramaioko hainbat herritar.

Deigarria iruditu zitzaidan Euskaltzaindian sartzeko egiten den protokolo dotorea. Une batez Aita Patxi apaiz jantziak sakristian utzita dotore abiatu zen udaletxetik eliz atarira Andres Urrutia, euskaltzainburuaz eta beste euskaltzain osoz inguratuta. Protokoloak agintzen duen bezala euskaltzain berria atarian gelditzen da euskaltzainburuak sartzeko deia egin arte. Miren Lourdes Oñaederra eta Sagra-



Patxi Uribarren sarrera-hitzaldia irakurtzen.

rio Aleman izan ziren Patxi hartu eta txalo zaparrada hotsez aldare aldera eramane zutenak. Aurretik bagenekien euskaltzain berriak idatzi zuen hitzaldiaren izenburua: “Zirelako gara eta garelako izango dira”. Mamitsua izango zela ere ezin ukatu, horrelako kasuetan denboraz eta ondo hausnartutako testuak izaten baitira.

Lehenengo hitzetan Henrike Knör izan zuen gogoan haren aulkia hartu baitu Arabako lurraldetik. Estimatu zuela agerian jarri zen, biek euskararen alde jardun baitute urteetan zehar beren lurraldean. Patxi adierazi zuen bezala, zaila gertatzen da hitz gutxitan adieraztea Henrikek burututako lan guztia. Aipagarria onomastikan eta toponimian aditua zela eta besteen laguntzaz Gasteizeko Euskal Filologiako fakultatea martxan jarri izana.

Bertara joateko deia egin zion Henrikek Patxiri

Elizaren ikuspegia sarrera-ekitaldian.





baina Jaungoikoak edo bizitzak beste bide batzuek zituen pentsatuta gure karmeldarrarentzat.

Hitzaldiko gaiari helduz, transmisioa hartu zuen ildotzat, hizkuntza batek, edozein hizkuntzak, bizirik iraun ahal izateko, ezinbestekoak dituela lurraldea eta gutxieneko hiztun kopurua gogoratuz. Txikitatik garatu behar da hizkuntzarekiko gertutasuna, hor oinarritzen baitira geroko norabidearen oinarriak. Beraz, euskara bizirik ikusi nahi badugu, badakigu nondik hasi behar dugun lanean.

Bere hitzaldia (“Izan zirelako gara, eta garelako izango lirate”) hitz honekin asi zuen:

“Hitzaldi honek euskarari buruzkoa izan behar duenez, egokitatzat jo dut transmisioari buruzko gogoeta batzuk egitea.

Joan zen urtean, Euskaltzaindiaren 90. urteurrena zela eta, Arabako Aldundian izandako hitzaldi laburrean, *“gizakiok une eta toki zebatz batzuetan bizi izaren garelak”*, eta horrek baldintzatzen duela gure bizitza gogoratu nuen. Izan ere, lurralde



Elizako ikuspegi zabala. Ezkerreko lerro bertikalean Patxi elizara ekarri zuten Sagrario Aleman eta Miren Lourdes Oñaederra..

bakoitzeko geografiak eta demografiak baldintzatua izan ohi da. Aramaion ere hala gertatu dela uste dut.

Beraz, gogora ekar dezagun edozein hizkuntzak, bizirik iraun ahal izateko, ezinbestekoak dituela lurraldea eta gutxieneko hiztun kopurua. Faktore bi horiek baldintzatzen dute bere ibilbide historikoa. Honetan, adibiderik argiena, latinarena dugu. Hiztun kopuru handia izan, eta mendeetan goi-mailako zereginetan bizirik iraun arren, lurraldetasuna galtzean gain-behera etorri zen. Esperantoaren kasua ere antzekoa dugu. Lurralderik ez izatean, ahaleginak egin diren arren ez du gizartean errotzerik lortu.

Bestalde, psikologiak diosku pertsonon izaera, zeharo taxututa edota finkatuta geratzen dela, hainbatean, sei, zazpi edo



Jose Luis Lizundia, erantzuteko hitzaldia irakurtzen.

zortzi urte bete orduko. Hau da, bizitzako lehen urte horietan jartzen ditugula gure geroko norabideen oinarriak. Adin horretan bideratuta geratzen omen da, gure nortasuna. Hortik, txikitxikitako urte horiek duten garrantzia!

Guzti hori kontuan izanik, nire jardun honetan Aramaioko nire jaioterrian euskarak azken mendean egin duen ibilbide luzeko ikuspegi orokorra jarri nahi dizuet aurrez aurre: nondik gatozen, non aurkitzen garen, eta norantz goazen. Eta hori, ekitaldi hau berba gozoetan, asmo ederretan edota elkartasunezko harreman hutsetan gera ez dadin”.

Lehenengo zatiaren gai nagusia euskarak XX. mendean Aramaion izan duen eboluzioa izan zuen mintzagai. Gerra aurreko aldian herrian erabiltzen zen hizkuntza euskara zela gogoratu zuen, nahiz eta XIX. mendearen azkenetan erdararen erabilpena sartu. Gerra ondorengo urteak gogorak izan ziren euskararentzat eta euskararen alde lan egiten zuten gizon eta emakumeentzat. Horren adierazleetariko bat, aipatu zuen Patxik, Ole-



Euskaltzainburua Patxiri domina jartzen.



Ibabe loba aurrekua dantzatzen.

tako Aita Leon Aranguren karmeldarraren kasua izan zen, hots, bederatzi urte kartzelan pasatu baitzituen.

Horrelako kasuak asko izan ziren eta hala ere euskarak aurrera egitea lortu zuen, nahiz eta izugarrizko zartada jaso zuen. Bat-batean moztu edo urkatu zuten ahalegin handiak eginez berpizten ari zen euskararen aldeko mugimendu osoa. Euska-



Patxi eta Jesus M. Elejalde.



Patxi euskaltzain osoekin.

raren landa berdea goitik behera urratu zuten, basamortu gorri bihurtuz. Euskaraz hitz egitea bera ere, hainbat kasutan delitu bihurtzeraino.

Urteak aurrea joan ahala, Aramaioko euskara auzoetan indartuz joan zen, hala bertako haur eta gazteek egunean zehar gehien erabiltzen zuten hizkuntza izanik. Baserriak ere leku aproposa ziren transmisioa sendotzeko.

Gerra osteko urteak oroitzapen bereziz gordetzen ditu Patxi.

“Urte horiek, bizitza osorako markatu nindutela uste dut. Euskara erabiltzeaz gainera, euskaldun izaten ere ikasi nuen. Nire bizitzako ibilbidean eragin handia izan duten hainbat baliore ere jaso nituen bertan; auzolanean edo talde-lanean jarduten, trukean ezer eskatu gabe beharrizanean denari laguntzen, ingurua eta natura maitatzen, luzaroan isilean egoten, pertsona nagusiei begirunea izaten, uzta oparo jasotzeko esku-zabalez ereiten, ondasunak tentuz eta neurriz erabiltzen, eta

beste hainbat gauza eder. Kristau bizitza ere bertan jaso nuen, etxean, elizan eta auzoan. Esan dudan moduan, berez-berez”.

Gerra ondoko iraupen-urteei (1940-1960) buruz hau adierazi zuen Patxik:

“Nire umetako garaian, Aramaioko euskararen egoera gaurkoa ez bezalakoa zen. Batetik, populazioari begiratu, “kalea” deitzen dugun Ibarran baino jende gehiago bizi zelako auzoetan. Eta auzoetako bizitza oso-osorik euskara hutsean izaten zelako. Ni ere, horrela bizi izan nintzen. Nire aurrekoek ez bezala, eskola ere auzoan bertan izan nuen. Eskola horrek, baina, gaztelania hutsean antolatuta izan arren, ia-ia ez zuen inolako eraginik gure eguneroko bizitzan. Eskolatik kanpo ez genuen inoiz ezertarako gaztelaniarik erabiltzen. Elizan ere, liturgia hizkuntza latina izanik, kristau-bidea, azalpenak, hitzaldiak, aitortzak, kantuak, den-dena euskara hutsean izaten zen.

Familiakoekin.





Karmeldarrekin eta "Karmel"eko lankideekin.

Baserrietako bizimodua, bestalde, oso egokia zen transmisiorako. Familiak nahiko handiak izatean, etxean nahiz lanean bertako kideek elkarren artean hitz egiteko aukera ugari izaten zuten. Berez-berez ikasten ziren euskarako eskakuneak eta ohiturak. Zaharren eta gaztetxoaren arteko harremanak hain estuak izateak euskara aberatsa jasotzeko aukera paregabea eskaintzen zigun gaztetxoari. Auzoan egiten genuen bizitza osoa. Nik sarri aitortu izan dut Erdi Aroan edo bizitakoa naizela. Eta pozik, gainera!

Ibarran, oster, gehienak euskaldunak izan arren, handiagoa zen gaztelaniaren presentzia. Umetxoek sarri erantzuten zieten gaztelaniaz euskaraz egiten zien gurasoei. Gurtze-bide latza izan zuten hainbat guraso euskaltzalek!"

Azken 50 urteetan euskararen egoera aldatuz joan dela aipatu zuen Patxik. Euskal Herriko herri askotan gertatu izan den bezala, gazteek apenas jarraitu dute baserrietako bizimoduan



Eliza aurreko dantzak eta plazako jarduna.





Santutxuko adiskideekin.

herri eta hirietara zabalduz beren etorkizuna. Auzoetako eskolak itxi eta herrirantz jo behar izan zuten inguruko haurrek. Aldaketa honek bertako haurrek erdararekin kontaktu gehiago izatea ekarri zuen. Gogor hasi ziren Patxi eta beste lagun batzuk Aramaioko euskara berpizteko asmoz. Horretarako kurtso desberdinak antolatzeari ekin zioten Santutxun egin ohi zuten bezala. Proposamenak mahai gainean jartzea ere lortu zuen: “bertako euskaldunek beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartzea; ikastola sortu berriari laguntzea; aurreko urtean hasitako gau-eskolak indartzea; euskarari berehala eskola nazionalen tokia egitea. Era berean, benetako konponbidea aramaiarren esku zegoela ere gogoratu nuen, agintariei nahiz herritarrei euskararen aldeko konpromiso sendoagoa hartzeko eskatuz”.

Gizarteak bizi dituen aldaketa handiak kontutan hartuz, 1980-2000. urteetan euskarak administrazio publikoan eta irakaskuntza publikoan lekua egitea lortu zuen baina hitzaldian aipatu zuen bezala 35-70 urte artekoak izaten direla, inkesta batzuen arabera, euskara gutxien erabiltzen dutenak. Jarrera honek, tamalez, haur eta gazteengan eragin handia izan duela baieztatu zuen euskaltzain berriak. Errealitate honen harira gogora ekarri zituen Gandiagaren hitzak: “hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”.

Behin baino gehiagotan aipatu zuen Patxik “globalizazioak eta teknologia berriek dakarten iraultza” eta honek nola eragiten duen transmisio prozesuan. “Euskara ahozko jarduna delarik, ezin bestekotzat jotzen da etorkizunari begira hortik abiatzea” gaineratu zuen. Era berean “Egoera horrela, ez dugu nahikoa asmo onak edo gogo finak izatea. Euskaraz bizitzea ahalbidertuko digun gizartea behar dugu” adierazi zuen Patxik.

Oraingo egoerari begirada bat emanez gero, Aramaioko euskara sendotuta dagoela esan zuen.

Erakunde eta talde asko dira euskararen alde lanean dihardutenak. Denei eskatu zien euskaltzain berriak adorez eta gogoz lanean jarraitzeko. Hauentzat izan zituen esker hitzak eta txalo bat ere eskatu zuen gizarteko arlo desberdinetan euskararen alde lan egiten ari diren pertsona guztientzat.

Erantzuna Jose Luis Lizundiaren eskutik etorri zen “Ganbarrietatik Araba euskaldunera” izenburutzat duen hitzaldiarekin. Bertan Patxi Uribarrenen biografia zabal bat eskaini zuen euskararen munduan izan dituen jarduera nagusiak gogoratuz, hots, Gogoz aldizkariko zuzendari, Bilboko Karmelo komentuko euskarazko elizkizunen antolatzaile, Santutxuko euskara taldeen bultzatzaile, Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzaile, etab. Jose Luis Lizundiak gogoratu zuen bezala, euskaltzain berriak Karmel aldizkarian eta Bostak Bat taldeko argitalpenetan burutu ditu hainbat lan interesgarri.



Patxi gazte talde batekin elkarriketan

Lizundia jaunak “Ganbarruetatik, Araba euskaldunera” deituriko lanean datu interesgarriak bildu zituen:

“Askori entzun diot topiko hau: ‘Araban euskaldungoaren berezko eremua Aramaioke eremura mugatzen da’. Egia da, gaur egun, hiriburuan eremu erdaldunean noski- euskaldun ugari bizi direla baina gehienak giputzak direla eta gero euskaldun berri mordo bat”. Topiko horren aurrean behin baino gehiagotan haserretu naiz eta neure bizipen, lekukotasun edo ikerketak azaldu dizkiet bati baino gehiagori, gezurtatuz edo

argituz Arabako euskal eremu garaikidea, XX. mendekoa, Aramaioko Gainbarrua baino zerbañt gehiago dela”

Gogoan hartzeko hainbat ondorio ere eskaini zizkigun. Besteak beste:

- Arabaren euskal eremu garaikidea ez dela hain txikia, are gutxiago, topikoei eta ez ezagutzeari jarraiki, ezin dela Aramaioko Gainbarrura mugatu

- Euskara Normalizatzeko Oinarrizko Legeak ez duela inoiz lurralde historikorik aipatzen, zonaldea/eskualdea baizik.


- Soziolinguistika ikuspegitik hizkuntza normalizazio plangintzetan (...) eskualdearen lidergoa, aramaioarrei tokatzen ziztaizuen/zitzaizue, udalerri hau delako indartsuena.

- Alde horretatik, Patxi Uribarren Aramaioko arabarra euskaltzain oso proposatu genuenean, faktore horiek ere kontuan izan genituen.



- Amaitzeko, horrek ez du kentzen, alderantziz baizik, hiri-buruan jokutzen duela euskarak bere etorkizun nagusia, bai normalizazio soziolinguistikoan, bai estandarizazioan, literaturan, ikerketan eta beste alorretan.

Hitzaldien ostean dominen momentua etorri zen. Andres Urrutia euskaltzainburuak, medaila eta diploma entregatu zizkion euskaltzain berriari. Honen ondoren eta, protokoloari jarraituz, ekitaldian parte hartzen ari ziren euskaltzain osoek beren agurra egin zioten Patxiri. Omenaldietan gertatzen den bezalaxe, bakoitzak bere oparia eskaini nahi zuen eta momentu aproposa aukeratu zuen Aramaioko abesbatzak bertakoei pare bat abesti eskaintzeko eta ekitaldi nagusiari amaiera emateko. Derrigorrezko argazkiak atera ostean, elizaren aterian Aramaioko dantza taldeak bere errepetorioa eskaini zuen. Kalejiran joan ziren gonbidatuak eta herri-tarrak anaitasun giroan herriko plazan antolatu zuten lunch batez gozatzeko eta egunak emandako gutzia elkarrekin konpartitzeko.



Uribarren baserria eta Etxagueneko ikuspegia.

Une horretan entzun ziren euskaltzain berriari beronen ilobek
bihotz-bihotzez kantatutako bertso hauek ere:

Euskaltzaindiak gure etxandar
hauxe du aukeratuta
eta zure lobak hementxe gaude
kanturako elkartuta.
Aramaioko seme den arren
Santutxuraino helduta
osaba Patxi denontzat dago
«aita Patxi» bihurtuta.

Karmelotarren komentutik zuk
egin duzu lan polita
aspaldi zaude euskeran alde
lana egiten hasita.
Hainbat hiztegi oparitu du
... ta gainera eskeinita
familiako etxeak daude
hiztegiekin josita.

Familiako guztiontzako
beti izan da gertuko.
Gurasoei ikasitako
hizkuntza ez du ahaztuko,
berakin ez da euskara garbi
eta aberatsa galduko:
Euskara salbu ikusi arte

Azkenik, orri hauetatik eta *Karmel* aldizkariaren kolabora-
tzaile guztien izenean, Zorionak Patxi!

Jon Korta